



ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUETAKO ESKOLA KONTSEILUKO KIDEAK HAUTATZEKO PROZESUA GARATZEKO JARRAIBIDE OSAGARRIAK

1.-Hautatu beharreko pertsonak.

Eskola-kontseilu bakoitzean honako kideak aukeratu beharko dira:

a) Urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretua (urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak aldatua) indarrean sartu ondoren eskola-kontseilua lehenengoz aukeratu behar duten itunpeko ikastetxe pribatuetan, eskola-kontseiluko kide hautetsi guztiak aukeratu beharko dira.

b) 2022-2023 ikasturteko hauteskunde-prozesuan eskola-kontseiluko ordezkariak aukeratu zituzten ikastetxeetan, dagozkien kideak hautatu behar dira, lanpostu huts hauek betetzeko:

1) Ordezkariak, edo haien ordezkoak, hutsik uzten dituzten lanpostu hutsak, 2024-2025 ikasturteko lehen hiruhilekoan izendatuak izan ziren aldia amaitzen dutenak.

2) 2022-2023 ikasturtean 4 urterako aukeratu eta orduz geroztik, edozein arrazoi dela ere, Eskola Kontseiluko kide hautetsi gisa baja hartu duten ordezkariak sortutako lanpostu hutsak, baja ordezko batek bete duen alde batera utzita. Kontuan izan behar da urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 21. artikulua 4. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, baja hartu duen ordezkaria 2026-2027 ikasturtearen hasierara arte izendatu bazen ere, haren ordezkoak Eskola Kontseiluko kide izateari utzi behar diola 2024-2025 ikasturteko lehen hiruhilekoan.

2.- Hauteskunde-prozesuaren araudi errekulatzailea

Aurreko jarraibideko a) idatz-zatian deskribatutako kasuetan kontuan hartuko da urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuko 8. artikuluan jasotakoa. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseilua hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen da (1997ko urtarrilaren 24ko EHAA).

Aurreko jarraibideko b) idatz-zatian deskribatutako kasuetan kontuan hartuko da aipatutako Dekretuko 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoa.

Nolanahi ere, dagokion hauteskunde-prozesua aipatutako Dekretuko 11. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan egingo da.

3.-Hauteskunde Batzordea.

Ez zuzendariak ezta zozketaz Hauteskunde Batzordeko partaide izan behar duten beste pertsonak ere, ezin diote Batzordean parte hartzeari uko egin.

Nolanahi ere, Batzordeko kideren bat edo batzuk ez bertaratzeak ez die baliorik kenduko Batzordearen erabakiei.





Hauteskunde Batzordeko kide izateak ez du eragotziko pertsona batek ikastetxeko Eskola Kontseiluko kide izateko hautagaitza aurkeztea, kide den estamentuaren ordezkari gisa.

4.- Hautagai-zerrendak eratzea.

Hautagaiak elkarte, erakunde edo talde jakin bateko kide gisa aurkeztu ahal izango dira, betiere elkarte hori legez eratuta eta Elkarteen Erregistroan inskribatuta badago.

5.- Zein kasutan ez den beharrezkoa hauteskunde-prozesua egitea.

Eskola-komunitateko sektoreren bateko hautagai-kopurua sektore horrek prozesu honetan hautatu beharreko ordezkari-kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, ez da beharrezkoa izango hauteskunde-prozesua gauzatzea, eta hautagai guztiak automatikoki hautatuko dira, baldin eta ez bada beharrezkoa zehaztea zein hautagai izendatu behar diren lau urterako eta zein izendatu behar diren bi urterako.

Eskola-komunitateko sektoreren bateko hautagai-kopurua sektore horrek prozesu honetan hautatu beharreko ordezkari-kopuruaren berdina edo txikiagoa bada, baina lau urterako zein hautagai izendatu behar diren eta bi urterako zein izendatu behar diren zehaztu behar bada, hauteskunde-prozesua gauzatu egin beharko da, eta, urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, boto gehien lortzen dituzten hautagaiak lau urterako hautatuko dira, eta gainerakoak bi urterako.

6.- Hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat aukeratu behar duten ikastetxeak.

Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikotan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan ere Eskola Kontseiluko kide izango da hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat.

Hezkuntza-arreta osagarriko langiletzat hartuko dira ikastetxeari atxikitako irakasleak ez diren langileak, uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuaren eranskinean (eta ondorengo aldaketetan) ezarritako antzeko lanposturen batean daudenak. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen da.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna arautzen duen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak 7. artikuluan xedatzen duenez, ahal den guztietan, ikasle horiek unitate arrunten bidez eskolatuko dira, eta, beharrezkoa denean bakarrik, hezkuntza bereziko unitateen edo ikastetxe arruntetako gela egonkorren bidez.



Ondorioz, **gela espezializatuak dituzten ikastetxeak hezkuntza bereziko gela egonkor bat edo batzuk dituzten ikastetxeak dira**, eta horietan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak soilik artatzen dira, ikastetxeko gela arruntetan integratuta egon gabe.

Aurreko atalean aipatutako ikastetxeetan bakarrik sartu beharko da Eskola Kontseiluaren osaeran hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat.

Aitzitik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta ikasle horiek ikasgela arruntetan integratzearen bidez soilik egiten den eta behar duten arreta espezifikoa ematen zaien ikastetxeetan, **ez dagokio hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari ikastetxeko Eskola Kontseiluan sartzea**.

Ondorioz, ikastetxe horietan, hezkuntza-arreta osagarriko langileak ez dira hautesle edo hautagai izango ikastetxeko Eskola Kontseiluan ordezkari izateko eskubidea duten hezkuntza-komunitateko sektoreetan.

7.- Enpresa-munduko ordezkaria.

Lanbide-heziketa ematen duten itunpeko ikastetxeek enpresa-munduko ordezkari bat sartu ahal izango dute Eskola Kontseiluan.

Ikastetxeko egungo eskola-kontseiluak enpresa-munduko ordezkari bat badu eta ordezkari horren agintaldia 2024-2025 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan amaitzen ez bada, pertsona horrek eskola kontseilukoa izaten jarraituko du agintaldia amaitu arte. Bestela, ikastetxearen titularra Eskola Kontseiluak ikastetxeak ematen dituen Lanbide Heziketako irakaskuntzekin lotura handiena duen enpresa-erakunde adierazgarrienari zuzenduko zaio, haren ordezkaria izenda dezan proposatzeko.

8.- Hauteskunde prozesuaren dokumentazioa.

Ikastetxe bakoitzak bere aktak eta boto-txartelak egingo ditu, Hauteskunde Batzordeak gainbegiratuta.

Boto-txartelek hautagaien behin betiko zerrendan agertzen diren pertsonen zerrenda alfabetikoki ordenatuta jaso behar dute, inolako zehaztapen edo bereizgarririk gabe, salbu eta hautagaien bat elkarte, erakunde edo talde jakin bateko kide gisa aurkeztu bada eta hala adierazi bada hautagaitzak aurkeztean.

2024ko abenduaren 11a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak hauteskunde-prozesuaren laburpen-fitxa bete eta dagokion ikuskapen-eremura bidaliko du.



9.- Posta bidezko botoa.

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore guztien parte-hartze ahalik eta handiena lortze aldera, hautesleek postaz eman ahal izango dute botoa, zeina Hauteskunde Batzordearen esku izango baita hauteskundeak egiteko aurreikusi den egunaren bezperan. Hauteskunde Batzordeak zerrenda batean jasoko ditu hartutako komunikazioak, eta zerrenda hori hauteskunde-mahai bakoitzari emango zaio hauteskunde-egunean eratzen den unean bertan.

Horretarako, posta bidezko boto-sistema erabili nahi duten hautesleek honako agiri hauek helaraziko dizkiote Hauteskunde Batzordeko lehendakariari, gutun bidez edo mezularitza-zerbitzu bidez, edo ikastetxean bertan edo beste pertsona baten bidez entregatuta:

- a) Hautesleak izenpetutako eskabidea, posta bidezko botoa emateko eskubidea eskatzen duena. Bertan, bere izena, abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo baliokide den egiaztagiri baten zenbakia eta botoa emateko eskubidea gauzatzen duen hezkuntza-komunitatearen sektorea adieraziko dira.
- b) Nortasun-agiri nazionalaren edo horren baliokidea den egiaztagiriaren fotokopia.
- c) Gutun-azal itxia, boto-orria beteta duela.

Adierazitako dokumentu horiek Hauteskunde Batzordeko buruari helaraziko zaizkio, gutun-azal baten barruan. Gutun-azal horretan honako hau jarri behar da: «..... ikastetxeko Eskola Kontseilurako hauteskundeak. Posta bidezko botoa».

Posta bidezko botoa duten gutun-azalak Hauteskunde Batzordean sartu beharko dira hauteskundeak egin aurreko egunera arteko epean. Adierazitako epetik kanpo jasotzen diren gutun-azalak ez dira bozketan sartuko.

Hauteskunde Batzordeko buruak zainduko ditu jasotako gutun-azalak, hauteskunde-egunera arte. Egun horretan emango zaizkio hauteskunde-mahaiko lehendakariari, modalitate horretako boto-emaileen izen-abizenak jasotzen dituen zerrendarekin batera.

Aurreko guztia gorabehera, posta bidezko boto-emailea hauteskunde-egunean bertan agertzen bada botoa emateko eskubideaz baliatzeko, posta bidezko boto-txartela baliogabetu egingo da. Gorabehera horren berri eman beharko da boto-zenbaketaren amaieran idatziko den aktan.

Hauteskunde-mahaiak posta bidez jasotako botoak gordeko ditu bozketan ixteko adierazitako ordura arte, eta hautestontzian sartuko ditu aipatutako itxiera egiten den unean, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera aldeztu aurretik baliogabetuak izan direnak izan ezik.



10.- Botoa eskuordetzeko ezintasuna.

Bozketak hautesle bakoitzaren boto zuzen eta isilpekoaren bidez egingo dira. Botoa ezin zaio beste inori eskuordetu.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

LUCIA TORREALDAY BERRUECO